

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko irailaren 20ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** Berringurumena, iraunkortasun irizpideen araberrako erosketen eskualde mailako zentrala; Kontratazio publikoan bizitzaren zikloaren kostuak kalkulatzeko pilotutza taldea; Ebaluazio eta jarraipen programa; Igorpen fokuen inbentarioa; Laguntza tekniko kontratatzeke lehiaketa, Eskolako Agenda 21 dinamizatzeke.
- **Planen berrikusketa: Ekintza planak prestatzeke fasea:** Haizea eta Ondoan laguntza teknikoek ordezkariak egutegia eta proiektua bukatu arteko hurrengo pausoak azaldu dituzte. Amaierako fase honetan, proiektuaren garrantzia laburbildu da eta arduraldi eta lehentasun beharra azpimarratu.
- **2011ko Memoria:** 2011ko jarduera plana eta kudeaketa planari buruz uztailean entregatutako balantze-txostena ontzat jo da.
- **2012ko behin-behineko balantze ekonomikoa:** honakoa adostu da: 1) Hilerik hil gastatutakoaren eta diru-sarreraren bilakaera eta urte bukaerara arteko aurreikuspenaren jarraipena egitea. 2) Kontsumoari eta hondakinei buruzko Etxebizitza Berdeak 2 proiektua abiaraztea, 3.600 euroekin, kontuetan sartzen delako eta errentagarritasun sozial handia daukalako. 3) Erabilgarritasunaren arabera, azaroan egingo den hondakinak prebenitzeko asteaz kontzientziarazteko kanpainari partida bat ematea. Egokitze jo da udalen aldetik ordaindu behar diren kontuak laster ordaintzea.
- **Hiriko ortu ekologikoak:** informazio azpimarragarriena laburbildu da, power point batekin. Udal bakoitzean informazioa aztertu, eta interesa, kudeaketa eredua eta hurrengo pausoak zehaztea adostu da.
- **Done Jakue Bidea:** hasierako oniritzia eman da 2013ko jarduera planean garatzeko, bai eta diru-laguntzak bilatzeko ere.
- **Plangintza energetikoa: Alkateen Itinerantz bidea eginez:** EEEko arduradunen azalpenen ostean, udal bakoitzak ekimen honetan parte hartzea baloratuko du eta urriko batzarrean jarriko da komunean.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** urriaren 11n, azaroaren 8an eta abenduaren 13an, beti ere, 09:00etatik 11:00etara.